



Andoaingo Udala lanean ari da COVID19a andoaindarren artean izaten ari den eragin sozio-ekonomikoari aurre egiteko

Maidar Lainez alkateak eta Mari Jose Izagirre alkateordeak bideo bitartez aurreratu dute COVID19a andoaindarren artean izaten ari den eragin sozio-ekonomikoari aurre egiteko Andoaingo Udaletik egiten ari den lanari buruzko informazioa:

1). Udal baliabideen berrantolakuntza: langileak eta baliabide ekonomikoak

- Gizarte Zerbitzuetako Saila indartu da, Atariako eta Idazkaritzako langileekin.
- San Joan Bataiatzailea Egoitza indartu da: Eguneko Zentroko langileekin: 4 laguntzaile, psikologo bat eta dinamizatzailer bat.
- Udaltzaingoa berrantolatu da: ohiko zereginak egiteaz gain (azpimarratu behar da apirilaren 1ean Udaltzaingoko agenteek bilatzeko eta harrapatzeko agindupean zegoen emakume bat atxilotu zutela), zerbitzua berrantolatu da, kalean agente gehiago egoteko, segurtasuna handitzeko eta konfinamendu neurriak betetzen direla bermatzeko.
- Garbiketa indartu da: obra brigada osatzen duten langileak garbiketa brigadan txertatu dira, hau indartzeko asmoz, herriko kale nagusienak egunero urez garbitzeko, kaleen ohiko garbiketa motorizatua egiteko eta erabilera komuneko guneak eta kaleko altzariak, barandak eta ukitzen diren elementuak desinfektatzeko eta garbitzeko.

Gobernu Taldetik eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko langile guztiei, jasaten ari garen muturreko egoera honetan egiten ari diren lanarengatik, izan ere, badakigu pertsona bakoitza, bere postutik eta erantzukizunetik, daukan onena ematen ari dela.

2). Hurbileko arreta zuzena gure nagusiei:

Hainbat fasetan egin da:

- 75 urtetik gorakoak: 968 pertsonarekin jarri gara harremanetan (707 etxebizitza).
- 70 eta 75 urte artekoak: 689 pertsonarekin jarri gara harremanetan.
- 65 eta 70 urte artekoak: oraintxe ari gara deitzen.

Dei horien ondorioz 24 eskari sortu dira: elikagaiak erosteko 15 eskari, farmaziara joateko 8 eskari, zaborra jaisteko eskari bat. Eskari horiei Gurutze Gorriaren eta boluntario taldearen laguntzari esker erantzun ahal izan zaie.



Gainera, supermerkatu kate handi bat Gurutze Gorriarekin harremanetan jarri da, eta janari soberakinak eskaini dizkio. Ekarpen horri esker, eta Gizarte Zerbitzuekin koordinaturik, 16 familiaren beharrei erantzun ahal izan zaie. Udala elikagaien banaketa ari da egiten Caritasekin koordinaturik, Gurutze Gorriaren eta boluntario taldearen lankidetzarekin.

Gobernu Taldetik eskerrak eman nahi dizkiegu Gurutze Gorriari, boluntario taldeari eta Caritasi, egiten ari diren lanarengatik eta Udalarekin duten lankidetzarengatik, jasaten ari garen egun gogor hauetan.

3). Laguntza ekonomikoak merkataritzari-ostalaritzari, azokako postuei eta autonomoei:

Andoaingo Udalak laguntza lerro berria jarriko du martxan, herriko eragile ekonomikoen eteteari eta itxierari aurre egiteko. Datozen egunetan argitaratuko da xehetasunak deskribatuko dituen laguntzen agindua.

- 400 euro saltoki eta ostalaritza establezimendu bakoitzarentzat itxita dagoen hilabete bakoitzeko.
- 400 euro titular andoaindarraren duen azokako postu bakoitzarentzat azoka itxita dagoen hilabete bakoitzeko.
- 350 euro jarduera Andoainean egiten duten autonomo andoaindarraren bakoitzarentzat jarduera profesionalik gabeko hilabete bakoitzeko.

4). Merkataritzako eta ostalaritzako ordainagirien ordainketa:

- Merkataritza itxita dagoen bitartean terrazen tasaren ordainagiririk ez pasatzea.
- Erraztasun indibidualizatuak Udalean tributuak ordaintzeko orduan: atzerapenak edo/eta zatiketak.
- Establezimendua itxita egon den denboraren proportziozko murrizketa zenbait tasatan, JEZ, ura, zaborrak...

5). Andoaingo ikasleen Internetarako sarbidea

Kultura eta Hezkuntza Saila hiru ikastetxeekin koordinaturik ari da lanean, ikasleek Internetara konektatzeko dituzten beharrak hautemateko. Ikasle guztiek online klaseetara sartu ahal izateko ari gara lanean.



Andoaingo Udala



Gainera, Udaletik **zenbait aholku** bideratu da:

- Emakumeei gogorarazi behar zaie, **edozein eraso sexistaren edo etxe barruko indarkeriaren aurrean, telefono zenbaki hauekin** jar daitezkeela harremanetan:
 - 900 840 111: Eusko Jaurlaritzaren SATEVI zerbitzua.
 - 900 300 819: Andoaingo Udaltzaingoa.
 - 943 304 343: Andoaingo Gizarte Zerbitzuak.
 - 943 300 830 (397 luz.): Andoaingo Berdintasun Zerbitzua.
- Gaur, astelehena, apirilaren 6a, **Ariketa Fisikoaren Munduko Eguna** da. COVID-19ak konfinamendu neurriak gauzatzera behartzen gaituen arren, oso garrantzitsua da aktibo jarraitzea. Webgunean, etxean ariketa fisikoa egiteko proposamenak aurkituko dituzue. Aukera itzazue gehien atsegin dituzuen proposamenak eta goza ezazue!
- **Aste Santu** aurreko egunetarako, Andoaingo Udaletik erosketa arduratsua egiteko deia egin da. Gogorarazi behar da elikagaien hornidura eta banaketa bermaturik daudela. Era arduratsuan, pixkanaka, erostea gomendatzen da, gertuko saltokietan, eta denboraldiko produktu freskoak, segurtasun neurriak eta mugak gordez.

Amaitzeko, Gobernu Taldetik, itxaropenez beteriko mezua bidali nahi diegu andoaindarrei, badakigulako denon artean koronabirusaren aurkako borroka irabaziko dugula. **Beraz, animo, indarra eta jarraitu borrokan!**

Andoainen, 2020ko apirilaren 6an



El Ayuntamiento de Andoain trabaja para contrarrestar el efecto socio-económico del COVID19 entre los y las andoaindarras

La Alcaldesa Mainer Lainez y la teniente alcalde Mari Jose Izagirre han avanzado mediante video parte del trabajo que se está desarrollando desde el Ayuntamiento de Andoain para contrarrestar el efecto socio-económico del COVID19 entre las y los andoaindarras:

1). Reorganización de los recursos municipales: personal y recursos económicos

- Se ha reforzado el Departamento de Servicios Sociales, con personal de Ataria y de Secretaría.
- Se ha reforzado la Residencia San Juan Bautista: con el personal del Centro de día: 4 auxiliares, 1 psicóloga y 1 dinamizadora.
- Se ha reorganizado la Policía Municipal: además de realizar las tareas habituales (destacar que el día 1 de abril, agentes de la Policía Local han detenido a una mujer que estaba en búsqueda y captura), se ha reorganizado el servicio de forma que haya más presencia de agentes en la calle, para aumentar la seguridad y garantizar el cumplimiento de las medidas de confinamiento.
- Se ha reforzado la limpieza: la brigada de obras, se incorpora y refuerza la brigada de limpieza, para realizar “baldeo” diario de las principales calles, limpieza motorizada habitual de las calles, desinfección y limpieza de las zonas de uso común, así como mobiliarios, barandillas y elementos de contacto.

Desde el Equipo de Gobierno, nos gustaría agradecer a todo el personal del Ayuntamiento la labor que está realizando en esta situación extrema que nos está tocando vivir, ya que nos consta que cada persona, desde su puesto y responsabilidad, está tratando de dar lo mejor de sí misma.

2). Atención cercana y directa a nuestras personas mayores:

Se ha realizado en varias fases:

- Mayores de 75 años: se ha contactado con 968 personas (707 viviendas).
- Entre 70 y 75 años: se ha contactado con 689 personas.
- Entre 65 y 70 años: estamos llamando ahora.

Fruto de estas llamadas, han surgido 24 peticiones: 15 solicitudes de compra de alimentos, 8 solicitudes para ir a la farmacia, 1 solicitud para bajar la basura. Estas necesidades han sido atendidas con la colaboración de Cruz Roja y el grupo de personas voluntarias.



Además, una cadena de supermercados contactó con Cruz Roja y ofreció excedente de comida. Gracias a dicha aportación y en coordinación con los SS, han sido cubiertas las necesidades de 16 familias. El Ayuntamiento también está coordinando con Caritas la entrega de alimentos, con la colaboración de Cruz Roja y el grupo de personas voluntarias.

Desde el Equipo de Gobierno, nos gustaría agradecer a Cruz Roja, al grupo de personas voluntarias y a Caritas su labor y colaboración con el Ayuntamiento, en estos días tan difíciles que nos están tocando vivir.

3). Ayudas económicas al comercio-hostelería, a los puestos del mercado y a personas autónomas:

El Ayuntamiento de Andoain va a poner en marcha una nueva línea de ayudas de choque, para contrarrestar la paralización y cierre de diferentes agentes económicos locales. En los próximos días se publicará la orden de ayudas donde se describan los detalles.

- 400 euros por comercio y hostelería por cada mes cerrado.
- 400 euros por puesto del mercado titular andoaindarra por cada mes que el mercado permanezca cerrado.
- 350 euros por persona autónoma andoaindarra con actividad en Andoain por mes sin actividad profesional.

4). Pago de recibos para el comercio y hostelería:

- Decisión de no pasar recibo con tasa de terrazas, mientras el comercio esté cerrado.
- Facilidades de forma individualizada a la hora de pagar los tributos en el Ayuntamiento: aplazamientos y/o fraccionamientos.
- Reducción proporcional al tiempo de comercio cerrado, en tasas como IAE, agua, basuras.

5). Acceso a internet de alumnos y alumnas andoaindarras

El Departamento de Cultura y Educación coordina con los tres centros escolares, para detectar las necesidades existentes entre el alumnado, para poder conectarse a internet. Se trabaja para garantizar que todo el alumnado pueda acceder a las clases online.



Andoaingo Udala



Además, el Ayuntamiento ha trasladado **diferentes recomendaciones**:

- Recordatorio a las mujeres que, **ante cualquier agresión sexista o violencia doméstica**, pueden contactar con los siguientes **teléfonos**:
 - 900 840 111: Servicio SATEVI del Gobierno Vasco.
 - 900 300 819: Policía Local de Andoain.
 - 943 304 343: Servicios Sociales de Andoain.
 - 943 300 830 (397 ext.): Servicio de Igualdad de Andoain.
- Hoy lunes 6 de abril, se celebra el **Día Mundial de la Actividad Física**. Aunque el COVID-19 nos obliga a llevar a cabo medidas de confinamiento, es importante seguir activos. En la página web, encontraréis propuestas para hacer actividad física en casa. ¡Elegid las propuestas que más os gusten y a disfrutar!
- Para los días previos a la **Semana Santa**, desde el Ayuntamiento de Andoain se realiza un llamamiento a hacer una compra responsable. Se recuerda que el suministro y la distribución de alimentos está garantizado. Se aconseja que se compre de forma responsable y escalonada, en el comercio de proximidad y productos frescos de temporada, manteniendo las medidas y limitaciones de seguridad.

Por último, desde el Equipo de Gobierno, nos gustaría enviar un mensaje de esperanza a la ciudadanía andoaindarra, ya que estamos seguros de que entre todas y todos vamos a conseguir ganarle la batalla al coronavirus. **¡Así que ánimo, fuerza y a seguir luchando!**

Andoain, 6 de abril de 2020